



BANANA IRABIAKIA

OSAGIAK

Litro bat esne
3 jogurt
3 banana
4 koilarakada ezti
Intxaur muskatua



TRESNAK

Irabiagailua eta ontzia
Mikrouhin-labea
Edalontzia eta koilara
Hozkailua

NOLA EGIN?

1. Bota itzazu
irabiagailuaren ontzira
esnea, banana zatituak eta
jogurtak.



2. Bero ezazu ezti
apur batez
mikrouhin-labean.



3. Bota ezazu ezti
berotua esnea,
banana zatiak eta
jogurtak dauden
ontzira.



4. Irabia ezazu
ontziko nahasketa
guztia ongi.



5. Gehi ezazu esne
apur bat gehiago.
irabiakia leuna gera
dadin.



6. Utz ezazu
hozten hozkailuan
denbora batez.



7. Azkenik, bota
ezazu irabiakia
edalontzi batera eta
hautsezta ezazu
intxaur muskatu apur
bat.





OSATU taula eta IKASI

Zer esaten digu testu honek?	
Zenbat atal azaltzen da testuan?	
Zeintzuk dira atal horiek?	
Zer azaltzen da bigarren atalean?	
Zer azaltzen da hirugarren atalean?	
Nola hasten dira laugarren ataleko esaldiak?	

Behatu objektu hauek eta esan zein den osagaia eta zein tresna

			
espagetiak	lapikoa	platera	tomatea
			
txistorra	urdaiazpikoa	xukadera	zartagina